

**2009KO IRAILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO APARTEKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua

HILABETEA: iraila

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA:

- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Malu Valles Fernandez
- Juan Martin Aldaregia Etxebarria
- Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- DOLAREA HOTELA, S.L.ren alde GOZAMEN ESKUBIDEA ERATZEA.

Alkatea jaunak (EAJ), proposamenaren berri eman du:

“Gaia: gozamen-eskubidea eratzea.

AURREKARIAK

I.- 2007ko otsailaren 1ean udalbatza osoak erabaki zuen: Beasaingo Dolarea eraikinaren errentamendua Iban Mate Garaialde eta M^a Aranzazu Rancho Pisabarro jaun-andreek osatzen duten ondasun erkidegoari esleitzea, honek bere aldetik ostalaritzako eta hotel zerbitzua emateko egokitu dezan eta ondoren ustiatu dezan. Hori guztia baldintza pleguaren eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera, xehetasun hauek ezik:

- Lurrazpiko aparkalekuak egitea (horretarako planeamendua aldatu beharko litzateke).
- Udarako eta negurako terraza klimatizatua (ulertzen da iraunkor estruktura itxia, finkoa eta itxia edota erdi itxia dela).
- Txikipark instalazioa.

II.- 81.912,30 €ko behin betiko fidantza aurkeztu ondoren kontratu administratiboa sinatu zen.

III.- Adjudikaziodunek eraikina birmoldatzeko betebeharra dute eta horretarako finantziazioa behar dute. Gertatzen dena da, alokairua ezin dela hipotekatu erret eskubidea ez delako.

IV.- 2008ko irailaren 30eko datarekin, Iban Mate Garaialde eta M^a Aranzazu Rancho Pisabarrok idatzia aurkeztu dute, higiezinaren alokairua eta ustiapen eskubidea, DOLAREA HOTELA, S.L.ren alde eskualdatzeko eta duten eskubideen eraketa-titulua aldatzeko eskatuz.

Horren ondorioz, Igartzako Batzorde Bereziak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. DOLAREA HOTELA, S.L,ren alde, Dolarea higiezinaren alokairua eta ustiapen eskubidea eskualdatzea, udaletxean IFK eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotearen agiria aurkezteko baldintzarekin.

Bigarren. 2007ko otsailaren 1eko esleipen-erabakia aldatzea alokairu figurari dagokionean eta DOLAREA HOTELA, S.L,ren alde gozamen-eskubidea eratzea, Udalarena den Dolarea eraikinaren gain. Finka hau 11.446 zenbakiarekin Jabetza Erregistroan 1919 Tomoan 209 Liburuan eta 182 Orrialdean inskribatuta dago.

Hirugarren. Gozamen-eskubidea duenak Dolarea birmoldatu beharko du, ostalaritzako eta hotel zerbitzua eman ahal izateko. Gozamen eskubidea, 2007ko otsailaren 1eko udalbatzako esleipen-erabakian aurreikusitako baldintza berdinetan eratzen da.

Laugarren. Gozamen-eskubidea, hogeita hamar urterako eratzen da, 2007ko apirilaren 27tik, hau da, kontratu administratiboa sinatu zenetik kontatzen hasita, baina kontratu horretan finkatutako berrogeita hamar urtetaraino luzatzeko kalterik gabe.

Bosgarren. Gozamen-eskubidea duenak ezin izango du, eskubide hori eskualdatu, Udalak alde aurretik baimena eman gabe.

Seigarren. Gozamen-eskubidearen gainean hipoteka eratzeko baimena ematea. Udalak ez du inolaz ere gozamen-eskubidea duena ordezkatzeko, hipoteka ordaintzeko.

Zazpigarren. Finka grabatzen duen gastuak gozamen-eskubidea duenaren gain izango dira. Bere gain izango dira baita ere, gozamen-eskubidea eratzeko eskritura publikoa formalizazioa eta Jabetza Erregistroan inskribatu eta iraungitzea.

Zortzigarren. gozamen-eskubidea duenak eraikina aseguratu egin beharko du eta kalteak izango balitz, asegurua prezioa berak jasoko luke, baina higiezina berriro eraikitzeko baldintzarekin.

Bederatzigarren. Gozamen-eskubidea bertan behera geldituko da, aipatutako plegu administratiboan ezarritako baldintza zuntziarazleak ematen badira eta Kode Zibileko 513. artikuluan ezarritako baldintzagatik.

Iraungitze baldintzak ez dute eraginik izango eratu behar den hipoteka eskubidean.

Hamargagarren. Hamabost eguneko epean erabaki hau jasotzen denetik kontaktzen hasita, DOLAREA HOTELA, S.L.ek fidantza berria edo Iban Mate Garaialde eta M^a Aranzazu Rancho Pisabarro, 81.912,30 €koa lehen eratutakoa, hain zuzen ere, aldatu egin beharko du, gozamen-eskubidetik ondorioztatzen diren betebeharrak bermatzeko.

Hamaikagarrena. Alkatea jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak siantzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

PP eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Cuando hace varios años se planteó en este Ayuntamiento la utilización del sistema para la gestión del polideportivo, el partido socialista fue el único que votó en contra porque no veíamos claro el tema y pensábamos que a la postre no iba a ser beneficioso. El tiempo nos ha dado la razón. Hoy se nos plantea un tema, con cierta similitud en cuanto al cambio de la forma de explotación del caserío Dolarea. Se nos propone cambiar la figura del arrendamiento por la de usufructo. Nos surge la duda de que se pueda aplicar dicha figura para los bienes patrimoniales. Parece ser que la ley no lo prohíbe, pero tampoco lo menciona. No sabemos que interés puede tener KUTXA, aunque dice que es para que se pueda hipotecar. No sabemos qué hay detrás de esta propuesta. Como no lo vemos claro, el partido socialista va a votar en contra.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, EA, EB, PP)

Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 4

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez, onartu egin da proposamena.

Alkate jaunak (EAJ): “Yo no creo que hay ningún interés oculto. Es bueno dudar, pero el dudar también supone no avanzar.”

Jarraian Alkateak EAEko ordezkariari hitza eman dio, aldez aurretik hoek eskatuta eta ondorengo esan du: "Hipotekatze horrek zer esan nahi du?. Gaizki joaten bada, Udalak heldu behar diola?. Lehen ere esan genuen eraikin hori herritarrentzat izan behar zuela. Diru asko inbertitu behar denez, hobeto izango litzateke denok disfrutatzea.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.